

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012ko uztailaren 6a. IX. urtea. 2.380. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Berrobi guztiak babesten ditu Herriarteko Pilota Txapelketako finalistak

Lehiako azken txanpara iritsi izana ezustekoa izan da pilotarientzat, baina gogotsu daude irabazteko, eta herriaren babesarekin, gainera; final handia etzi izango da, 10:30ean, Donostiako Atano III.a frontoian, eta Hernaniko pilotariak izango dituzte aurkari 04

Medikamentuak ordaintzeko sistema berriak haserrea piztu du Leitzaldean

Botikariak kezu dira azalpenak emateagatik «lan bikoitza» egin behar dutelako, eta herritarrak poltsikoari eragiten dielako; hilaren hasieran aldatu zen ordainketa modua 07

Haurrek sanferminak ospatuko dituzte beste behin, Tolosako Alde Zaharrean

Burruntzalieta bizilagunen elkarteak antolatu du jaia, biharko; hainbat jarduerak izango dira, tartean zezen gurpildunen entzierroa 02



→ **Tolosa eta musika.** Tolosa Musikala ibilbidea prestatu du udalak. Bisitariek «urtean zehar, egun eta leku zehatzetan jotzen diren doinuak» entzun ahal izango dituzte, teknologia berriei esker. 03



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

ingeleraz ere bai

ziklo guztiak euskaraz

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

MATRIKULA EPEA: Uztailaren 5etik 11ra

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanika
- Informatika
- Administrazio eta Finantzak
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Automatizazio eta Robotika industrialak
- Metal eraikuntzak



Iaz bezala, buruhandiak izango dira biharko San Fermin festan. I. TERRADILLOS

Zurigorritz jantziko da bihar, Tolosako Plaza Berria

Tolosako Alde Zaharreko sanferminak antolatu ditu biharko, Burruntzalieta bizilagunen elkarteak

Imanol Garcia Landa Tolosa

Hamar urte inguru badira Tolosako Alde Zaharreko Burruntzalieta bizilagunen elkarteak San Fermin jaiak ospatzeko ohitura berreskuratu zuela. Elkarteak Pilar Amianok dioenez, «lehen ere ospatzen ziren, baina etenaldi bat izan zen eta bizilagunek berriro ekin genion antolatzeari». Oraingo festak haurrei zuzendutakoak dira, eta asko dira zain egoten direnak gurgildun zezenen aurre-

an korrika egiteko. Burruntzalieta elkarteok zuzir jantzeko eta zapi gorria eramateko gonbita egin dute.

Bihar izango da jaiak, eta Plaza Berrian izango da festa guinea. Eguerdian txupinazoa, buruhandiak, musika, gozoki eta puxiken jaurtiketa, eta puzgarriak izango dira. Arratsaldea, entzierroa, haur jolasak, txokolate jatea eta musika izango dira. *Gaixoa ni* abestuz emango diote amaiera festari. Amianok nabarmendu duenez, Plaza Berriko tabernei esker banatuko dute txokolatea. Bestalde, udaleko diru laguntzaz gain, ez dute ohiko beste iturrietatik jaso laguntzak, eta beraz itsulapikoak jarriko dituzte tabernetan, nahi duenak bere laguntza emateko.

↓ Egitaraua

UZTAILAK 7, BIHAR

■ **12.00.** Txupinazoa, buruhandiak, musika, puzgarriak, gozoki eta puxiken jaurtiketa.

■ **17.00.** Zezen gurgildunen entzierroa. Ondoren, ume jolasak.
■ **19.00.** Txokolatea denontzat. Buruhandiak eta musika.
■ **19.30.** *Gaixoa ni*.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ingurune eta etxebizitza irisgarriak lortzeari buruzko jardunaldia

I. Garcia Landa

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Galetako Sailak sustaturiko *Etxean Ondo* programaren barruan, *Ingurune eta etxebizitza irisgarriak lortzeko zerbitzuak*. Bizitza guztirako etxebizitzak jardunaldia antolatu dute, Tolosan. Uzturre asistentzia gunean (San Joan 4-1.) egingo da jardunaldia, astelehenean, hilak 9, 18:00etan.

Jardunaldian, izenburuko kontzeptuen esanahia argitu eta zer irizpide bete behar diren zehaztuko dira. Horrela, ahalmenak eta adina kontuan izan gabe, edozein herritarrek bizitza osorako etxebizitza izan dezan.

Bizitzan zehar, edozeinek izan ditzake ahalmenak murriztuta (haurdunaldian, erori baten ondorioz, elbarritasun baten ondorioz, adinarean arabera...) eta une horietan bereziki eskertzen da etxebizitza behar horietara egokitua egotea, obra garestiak egitea edota etxez aldatu behar izatea saihestuaz. Ekitaldiak udaleko ordezkariek eta diseinu unibertsal eta irisgarritasun galetako hainbat adituen parte hartzea izango du, eta eraikuntzan parte hartzen duten hainbat profesionaleri bereziki eta gizarteari orokorrean dago zuzendua.

'Moonrise Kingdom' filma, asteburuan, Leidor aretoan

I. Garcia Landa

Tolosako Leidor aretoan film bakarra ikusteko aukera izango da asteburuan. *Moonrise Kingdom* pelikularren bi saio emango dituzte: lehenengoa, etzi, igandea, 19:30ean; bigarrenkoa, ikuslearen egunean, astelehenean, hilak 9, 20:30ean. Besteak beste, Bruce Willis eta Bill Murray aktoreek parte hartzen dute filmari.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Autoa.** Suzuki Vitara 2000 HDI. 100.000 kilometro dauka eta oso egoera onean dago. Aukera paregabea! Interesatuek, deitu 649 510941 telefono zenbakira.

Iurreamendiko festen txupinazoa, gaur

Tolosako Iurreamendi auzoko jaiak atzo hasi baziren ere, bi egun dituzte oraindik festa giroaz gozatzeko

I. Garcia Landa

Tolosako Iurreamendi auzoko festak ospatzen ari dira egunotan. Atzo hasi ziren, haurren eta helduen futbol partidekin eta afariarekin. Gaur izango dute jarraipena, txupinazoaren jaurtiketa-rekin. Haurrentzako bereziki prestatutako jarduerak izango dira gaur arratsaldean: entzierroa, jolasak eta txokolate jatea. Ondoren Larrain dantza egingo dute, eta eguna bukatzeko, afaria, dantza eta karaokea.

↓ Egitaraua

UZTAILAK 6, GAUR

■ **18:00.** Txupinazoa eta entzierroa.
■ **18:30.** Haur jolasak eta txokolate jatea.
■ **20:00.** Larrain dantza.
■ **20:30.** Afaria.
■ **22:30.** Dantza eta karaokea.

UZTAILAK 7, BIHAR

■ **19:00.** I. Iurreamendiko Herri Krossa.
■ **21:00.** Afaria.

Biharko, auzoko lehen herri krossa antolatu dute. Horren ondoren, jaiak amaiera emateko, afaria egingo dute.

Paleta txapelketari gaur emango diote hasiera

I. Garcia Landa

Tolosa CFren 44. Paleta txapelketari gaur hasiko da, lehenengo bi partidekin. 18:30ean ekingo diote lehen partidakoek, Bengoa-Txepi bikotea Menigain-Perurena bikotearen aurka. Ondoren jokatu-ko dute Ormazabal-Iban bikoteak Berdegue-Pagoaga bikotearen aurka.

Guztira bederatzi bikotek eman dute izena txapelketan, eta bi multzotan banatu dituzte. A multzoa bost talde daude eta B

multzoan lau talde. Multzo bakoitzeko bikoteak elkarren aurka jokatu dute. Ligaxkaren amaieran, multzo bakoitzeko lehen bi bikoteak finalerdietara igaroko dira.

Hain justu, finalerdiak hilaren 20ean jokatuko dira, eta finala hilaren 24ean izango da. Partida guztiak 18:30ean hasiko dira, eta 30 tantotara jokatuko dira. Antolatzaileek azaldu dutenez, partidak atzeraezina izango dira; arrazoi bakarra eguraldi txarra egitea izango da.

Meza abestuko du Txintxarrik, Santa Klaran

Alegiako abesbatzak 'Euskaldunen festa' izeneko meza kantatuko du, bihar, Tolosan dagoen komentuan

Eredakzioa

Alegiako Txintxarri abesbatza Tolosako Santa Klara komentuan mezetan kantari izango da, bihar. 400 betetzen dira aurtren klaratarren moja ordena Tolosara etorri zela, eta urteurren horren ospakizunen barruan abestuko du Txintxarri abesbatzak.

Meza 18:30an izango da eta alegiarrek Pedro Jose Peñagarikano

frantziskotarraren (1916-1983) *Euskaldunen meza* abestuko dute. Herri doinu euskaldunetan oinarritutako meza da, Alegiako Txintxarri abesbatzak aspaldidantik kantatzen duena. Garbiñe Orbegozok zuzenduko du korua eta Mariaje Rekondo herritarrek lagunduko die organoarekin.

Txintxarri abesbatzak esker ona erakutsi die Tolosako klaratarrei, urteurreneko ospakizunetan parte hartu eta meza kantatzeko gonbidapena egiteagatik. Aldi berean, klaratarren ordena esker oneko azaldu da, 400 urte hauetan modu batera edo bestera euren eginkizunetan laguntza eman duten erakunde eta herritarrekin.

‘Tolosa Musikala’ ibilbideak herriko turismo eskaintza osatuko du

Android sistemarentzat turismo aplikazioa sortu du Euskomediak, eskualdeko informazioa eta datuekin

Itzea Urkizu Tolosa

Tolosako musikari nahiz musikarierie eskaintako ibilbideak osatuko du, udalak eta Tolosaldea Garatzeko turismo sailak diseinaturiko ibilbideen sorta, *Tolosa Musikala* zirkuituarekin.

Bost dira, guztira, Tolosara bertaraten diren bisitariak burutu ahal izango dituzten ibilbide tematikoak: *Erdi Aroko udazkene-tik Napoleonen egunetara*, *Napoleonen garaitik gaur bizi garen mundura*, *Begiratokiak*, *Sentitu artea* eta *Tolosa Musikala*. Guztien inguruko informazioa, www.tolosakoudala.net webgunean eskuragarri da jada; euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez irakurtzeko aukera izango dute turistek, ibilbide bakoitzaren gainean klik eginez.

Aurkezpen prentsaurrekoan Hasier De los Rios zinegotziak nabarmendu zuenez, gainera, berrikuntza nabarmenetakoa udalaren webgunetik Google Maps-erako lotura izango da: «Ibilbide bakoitzaren historia laburra eta argazkiak ikusteko aukera izango da». Bide honetan, Tolosa Musikala izeneko ibilbide berriak



Guztira, bost ibilbide egiteko aukera izango da, sareko nahiz paneletako informazioa jarraituz. I. URKIZU

historiaz eta argazkiez gain, doinuak ere izango ditu, izan ere, Google Maps-en markaturiko gune interesgarri bakoitzaren gainean klik eginda, plaza edo kale horrekin lotura duen kanturen bat entzun ahal izango da.

Turismo arduradunek azaldu dutenez, «ibilbide honen bitartez, urtean zehar, egun eta leku oso zehatzetan bakarrik entzuten diren doinuak» bildu nahi izan dituzte, bisitariari helarazteko: inauteri nahiz Gabon doinuak, San Joan zortzikoa, Felipe Gorritiren obrak eta beste hainbat doinuk lagunduko diote bisitariari.

Ibilbideak teknologia berrietara ere egokitu nahi izan ditu udalak, eta kaleko paneletan nahiz herriko dendetan banatuko dituzten txarteltxotetan, QR kodeak txertatu dituzte, smartphone bidez zirkuituak jarraitu ahal izateko.

Dena den, Tolosaldea Tour bulegoan ere euskarri fisikoa izango dute ibilbideek, eta liburuxkak eskuragarri izango dira.

Android-en bidez bisitari

Euskomediak «Euskal Herriko ondarearen eskuko gida» sortzeko helburuz, Euskal Herria eza-

gutzeko Android-erako aplikazioa sortu berri du.

Koro Murok azaldu duenez, Tolosako 20 gune txertatu dituzte aplikazioan, eta Ibarako 3. Pizkanaka, ordea, edukiak osatu eta aplikazioan sartzen joango dira, eskualde osoko informazio turistiko bertan izateko: «Ondarea zentzu zabal batean jorratu nahi dugu, eta eskultura eraikin eta abarrez gain, tradizioak ere islatu nahi ditugu. Horregatik, hemendik gutxira, sanjoanetako nahiz inauterietako bideoak ere ikusi ahal izango dira aplikazio honen bitartez».

Larraitz eta Abaltzisketa jolasen bidez lotuko dituzte igandean

E. Maiz Abaltzisketa

Hilaren 8an, igandean, Aralarko Parke Naturala ezagutzeko modu dibertigarri bat antolatu du Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak.

10:30ean Larraitzetik Abaltzisketara doan ibilbidea egingo dute, eta bidean bertan Aralarko sekretuak ezagutzeko jolas dibertigarri batean parte hartzeko aukera izango da.

Familia eta haurrentzat egokia den ekitaldia da. Ibilbide erraza da, 30 minutu ingurukoa, eta jolasekin ordubeteko iraupena izango du.

Ibilbide gidatua euskaraz egingo dute. Parte hartzen duten guztiei %50eko deskontua egingo diete Larraitzen kokatzen den abentura Zuhaitz Parkean. Izena emateko edo informazio gehiagorako, 943 18 03 35 telefono zenbakira dei egin daiteke, edo barandiaran@gipuzkoamendimendi.net helbide elektronikora idatzi.

• alegaldea@hitza.info

Rapa Nui eta Ibarako dantzariak ariko dira, gaur, Euskal Herria plazan

I. Urkizu Tolosa

22:30ean hasita, Rapa Nui eta Ibarako dantzarien saioaz gozatzeko aukera izango da, gaur, Tolosako Euskal Herria plazan, Haka Haka Heinua eta Ibarako Alurr dantza taldearen eskutik.

Honez gain, ordea, uda osoan zehar hainbat ekitaldi antolatu ditu Tolosako udalak, iluntze eta gauak girotze aldera.

Uztailaren 20an, adibidez, musika bandaren kontzertua izango da 22:30ean, Lopez Mendizabal plazan; abuztuaren 7an, Hans Ole Thers-en organo kontzertua izango da Santa Marian 20:00etan; abuztuaren 7an eta 8an, zinea aire librean izango da Amarrotzen; abuztuaren 31n, Lauroba taldearen kontzertua izango da 22:30ean, Plaza Berrian; irailaren 14an, Doctor Deseok emanaldia eskainiko du Leidor aretoa; eta azkenik, Agustin Jimenez umoristaren saioaz gozatzeko aukera izango da, irailaren 21ean, 20:30ean, Leidorren.

• tolosa@hitza.info

Juan Mari Mujika behin-behinean espetxeratzea erabaki du epaileak

Pasa den asteazken goizean Frantziako Poliziak Barkoxen (Zuberoa) atxilotu zuen Mujika

I. Urkizu Amezketa

Juan Mari Mujika Dorronsoro espetxera bidaltzea erabaki zuen, atzo arratsaldean, Paueko Auzitegiak.

Goizean eraman zuten Paueko Auzitegira, eta Jean-Bernard Rouch fiskalak behin-behinean espetxeratzea erabaki zuen, Espainiaratzeko prozedura gauzatu edo ez erabaki bitartean.

Datorren asteartean aztertuko dute Espainiaren euroagindua; izan ere, Pauera oraindik ez da eskaera iritsi. Bere aldetik, Jean-François Blanco Mujikaren abo-



Amezketan elkarretaratzek egin dituzte aste honetan. E. MAIZ

katuak, txostena iritsi bitartean atxilotua aske uzteko eskatu zuen.

Jean-Bernard Rouch fiskalak azaldu zuenez, ez da ziurra auzipetua agertzea, eta, gainera, egoztitako delituek 20 urteko kartzela zigorra dutela nabarmendu zuen. Hori dela eta, Mujika behin-behinean espetxeratzea erabaki

zuen. Defentsak helegitea aurkeztuko balu, Espainiaratze prozesua asteetan edo hilabeteetan luzatuko litzateke.

Mujikaren aldeko aldarriak

Frantziako Poliziak herenegun goizean atxilotu zuen Amezketan bizi izan den iheslari ataundarra, Barkoxen (Zuberoa). 2001ean

Jose Maria Aznar Espainiako presidente ohia hiltzeko atentatu saioan, misilak jaso eta entregatzeko arduraz egotzi diote Mujikari. Atxiloteta salatze, elkarretaratzeak egin zituzten atzo eta herenegun Amezketa plazan, *Bake bidean, errepresio-rik ez!* Juan Mari askatu lelopean. Era berean, atzo, Beasaingo CAFeko enpresa batzordeak deituta, ehundik gora langilek elkarretaratzea egin zuten, izan ere, Mujika bertan egin zuen lan.

Polizien jazarpena salatua

Mujikak 2008ko abenduan polizia jazarpena jasan zuela salatua zuen. Espainiar poliziak mendialdera eraman zuela esan zuen, eta laku baten ondoko etxola batean galderak eta mehatxuak egin zituztela. Preso zuen alabaren egoera baliatuz, kolaboratzea eskaini zioten, baina Mujikak ez zien berehala erantzun. Salaketa aurkeztu eta beste euskal herritar batzuekin batera prentsaurrekoa eman zuen. Harrez geroztik, ez zula beste mehatxurik izan argitu zuen abokatuak.

Herriarteko Txapelketako finala jokatuko du Berrobik Hernaniren aurka, igandean; Atano III.a frontoian irabazi edo galdu, festa eta poza izango dira nagusi. Askok sagardotegian egingo dute bazkaria.

Herria Berrobiko pilotariekin

Eneritz Maiz Berrobi

Hasiera batean inork gutxi esperoko bazuen ere, Berrobik jokatuko du aurtengo Gipuzkoako Herriarteko Pilota Txapelketako finala. Oiarztzun, Azkoitia, Azpeitia, Hernani, Amezketa... izan dira azken urteetan goran ibili diren herriak. Aurten, ordea, herri txikia izan arren, pilotari bikainak dituela erakutsi du Berrobik.

Kadeteen mailan, Xabier Zubiriari eta Aitor Erasukinekin osatzen dute bikotea; jubenil mailakoa, Amaier Alberdi eta Jon Elustondok; eta nagusien mailakoa, Aratz Irazustak eta Iñigo Altunak.

Partidaz partida, hainbat herri kanporatu dituzte. Lehena Oiarztzun izan zen, atzetik Andoain kanporatu zuten, eta, azkenik, Bidegoian. Igandean, Hernaniren aurka neurtu beharko dituzte indarrak Atano III.a pilotalekuan. 10:30ean hasiko dira partidak.

Hamar urte baziren Herriartekoan parte hartzen ez zuela Berrobik. Arkaitz Aurkia Berrobiko taldearen arduraduna da, eta gogora ekarri du iaz taldea nola edo hala osatu zutela. Aurten ere, antzeko ibili dira. Herrian ez dute polita eskolarik, eta pilotari gutxi dituzte. Kadete mailako hiru pilotari dituztela aprobetxatuz, horietako bat, hau da, Amaier Alberdi jubenil mailan jarri dute jokatzen. Eta Aratz Irazustaren kasuan, berriz, pilota utzita egon arren, lizentzia ateratu du Iñigo Altunarekin jokatua ahal izateko. «Berrobin ahal zen moduan osatu behar genituen bikoteak, baina osatuz gero bikote politik eginez zakeela ikusten genuen», adierazi du Aurkiak. Ez dute ordezko pilotaririk, eta txapelketa guztian zehar zorteko izan dira ez baitute arazorik izan.

Asteazken arratsaldean aukeratu zuten materiala, eta pilota-



Ezker-eskuin, behean, Irazusta, Alberdi eta Zubiria; goian Altuna, Elustondo eta Erasukin pilotariak. IGL.

riak «oso gustura» geratu zirela esan du Aurkia arduradunak. Aukeraketaren ostean Atanon bertan egin zuten entrenamendua, eta pilotariak «lasai» ikusten ditu. «Hasieran urduriago zeuden, orain beraien buruengan konfiantza handia dute».

Finalari buruz hitz egiterakoan, aurreko partida guztien moduan «zaila» ikusten du. Baina, «gu hiru partidak irabaztera joango gara, aukerak baditugu eta» esanez bukatu du. Gauzak ondo joanez gero, kadeteen mailakoa irabazi egin behar dutelakoan dago. Jubenil mailan onena Elustondo dela azaldu du, eta nagusien mailan, berriz, Altunaren esperientziak asko eragingo du: «Oso momentu onean dago».

Herriko giroa ere nabaria dela dio, «laurogeitik gora lagun dauka izena emanda finalera joateko, eta pilotariak kalean animatu egiten dituzte».

Bukatzeke, Arkaitz Aurkiak eskerrak eman nahi izan ditu. Alde-

batetik, Amezketa Xalton Zabalari, eta, bestetik, Berrobiko Udalarik. «Pilota bat bera ere ez genuen, eta Xalton Zabalak utzi zizkidan maila bakoitzeko hamarna pilota. Eta egiten diren afari eta bazkariak egiteko ere dirurik ez genuenez udalak asko lagundu digu», azaldu du.

Irabaztera doaz

Aurtengo Herriarteko Txapelketako txapelak Berrobira ekarri nahi badituzte, sei pilotari izango dira pilotalekura atera eta dena eman beharko dutenak. **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK** bikote bakoitzeko atzelariekin hitz egin du.

Kadeteen mailako pilota partida, Aitor Erasukinekin jokatuko du. Finalera iristeko bidea dela eta, «txantxetan esaten genuen Atanon ikusiko ginela, baina ez nuen uste finalera iritsiko ginetik», azaldu du. Oiarztzun herria faboritoen artean zen, eta Berrobik txapelketatik kanpo utzi zuen. «Orduan hasi nintzen aukerak ikusten. Guregan konfiantza hartu genuen, eta azkenean sinesten hasi ginon», ekarri du gogora.

Jon Elustondok jokatuko du jubenil mailan. Herriarteko partidak hasi zituztenean, finalera

iristerik espero al zuen galdetuz, ezetz erantzun du. «Herriren bat edo beste kanporatzea posible ikusten nuen, baina zaila ikusten



Irabaztera joango gara, baina zaila izango da; presioa egiten saiatuko gara»

IÑIGO ALTUNA
Nagusien mailako pilotaria

«Txapelketa hasieran urduriago zeuden, orain beraien buruengan konfiantza handia dute»

ARKAITZ AURKIA
Arduraduna

«Herri txiki batentzako oso garrantzitsua da lortzen ari direna»

IÑIGO AIERZA
Alkatea

nuen gu finalera iristea», gaineratu du.

Iñigo Altuna da nagusien mailako atzelaria. Bere hitzetan, «hasieran ez genuen espero finalera iristerik, ezustekoa izan da». Azken boladan pilotan gazte gutxi dabilela Berrobin adierazi du, baina bikote politik osatu dituztela

Herriarteko Txapelketan parte hartzeko.

Garbi dago guztiak finalera irabaztera joango direla. Aitor Erasukin gaztearen ustez, «zaila izango da, baina irabazi beharko genuke. Jubeniletan zailago izango dugu, eta ea zorte pixka bat badugun». Nagusien mailakoa, berriz, «borrokatua» izango delakoan dago.

Jon Elustondoren iritziz, Hernaniren aurkako finala kadeteen partida irabaziz hasia espero du: «Kadeteek irabazteko aukerak dituzte, eta gu gure maila ematera joango gara. Irabazten hasiz gero, besteei presioa eginez, ea serio-serio jokatuz aurkariak urduri jartzen ditugun».

Nagusien mailan jokatuko duen Iñigo Altunak garbi utzi du: «Irabaztera joango gara, baina hala ere, zaila ikusten dut. Hernaniren partidak ikustera joan nintzen, eta ezagutzen ditut aurkariak. Baina irabazteko presioa egiten saiatuko gara».

Herriaren eta udalaren babes

Ez ditu 600 biztanle Berrobi herriak, baina udalak pilotariei laguntza eskaintzerako orduan, hasieratik garbi eduki du: pilotarien aldeko apustua egin du. «Beste eragile guztien moduan diru laguntza eskaera egin zuten, eta onartu egin genien eskaera. Laguntzak ez dira osotasunean onartzen, baina aurrera joan ahal gure hasierako laguntza txiki geratu zitzaie eta gehiago eman behar izan diegu», azaldu du Iñigo Aierza alkateak.

«Herri txiki batentzako oso garrantzitsua da lortzen ari direna», gaineratu du. Azken egunetan, «finalera iritsi gara eta, Atonara joan behar dugula, ez da besterik entzuten herrian. Izugarriko giroa sortu du», nabarmendu du alkateak. Irabazi edo galdu festa izango dutela baieztatzen du, «oso lorpen handia da lortu dutena eta sagardotegian elkartuko gara guztiak».

Herritarren, lagunaren eta familiaren babesik ere ez dute faltako sei pilotariekin, igandean. Autobusa bete-jende joango da Atano III.a pilotalekura, eta beste hainbatek autoz egingo du bertarako bidea.

Orain, pilotariei partidak irabaztea tokatzen zaie Herriarteko Txapelketari behar bezalako bukaera emateko. Baina egon ziur, irabazi edo galdu, festarik ez da faltako ez herrian ezta sagardotegian ere. Eta Berrobin, beste hainbat egunetarako hizketarako gaia izango da Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa.

Akademia Pausoka
UZTAILA eta ABUZTUA IRAILA
First Certificate Exam Kurtso hasiera 2012-2013
Erreferentzia klaseak Erreferentzia klaseak
Fisika, Kimika, Matematika... Matematika, Matematika, Matematika...
Martin J. Iraola, 2. beheko 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
943.249.161 | 686.971.962

ERRETENGIBEL UDAL BAZKUNAK SALGAI DITUK

- Rondilla kalea, 3. zenbakian 4 etxebizitza tasatu eta merkataritzako 160 m²-ko lokal bat.
- Plaza Berria, 1. zenbakian etxebizitza bat.

Informazio gehiagorako deitu
618 77 29 54 telefono zenbakira.

Zizurkilen barrena ibiltzeko hiru arrazoi berri zintzilikatu dituzte

Argazki zaharrak, Hizkera eta Oroimena atalez osatu dute 'Zizurkilenbarrena' webgunea

Asier Imaz Zizurkil

Zizurkilenbarrena atariari hiru atal berri gehitu dizkio udalak: Argazki zaharrak; Hizkera eta Oroimena. Orain arteko altxorra, altxor preziatu bilakatu da atal berri hauekin, eta herriari buruzko informazio baliotsua bilduz jarraitzen dute zizurkildarrek <http://barrena.zizurkil.eu> webgunean.

Atal berrien inguruko informazioa, Leire Zubeldia Komunikazio zinegotziak eman zuen herenegun, Atxulondo kultur etxean, Maialen Azkue eta Urtzi Regueroren laguntzarekin. Azken bi hauek, Zizurkilenbarrena beka-aren irabazleak izan dira 2006ean eta 2008an, hurrenez hurren.

Zizurkilenbarrena webgunearen inguruan hitz egiten hasi aurretik, bertara iristeko dauden bideak argitu zituen Zubeldiak: «Orain artean, www.zizurkilenbarrena.com atarian zegoen guztia jasota. Zizurkilgo Udalaren webgunea berritzeko erabakia hartu genuenean ordea, edukieran irabazi genuen, eta orduan herriko bi atari nagusiak atari bakar baten barruan sartzea erabaki zen». Zuzenean sartzeko aukerak bere horretan jarraitzen du, baina horretarako <http://barrena.zizurkil.eu> idatzi behar da sarean. Bestetik, udalak egindako aldaketak medio, www.zizurkil.com edo www.zizurkil.eu helbideen bidez iritsi daiteke Zizurkilenbarrena atarira.

Behin sarean egin beharreko

bidea argitu ondoren, webgunea deskribatu zuen Leire Zubeldia zinegotziak: «Duela urte batzuetatik martxan dagoen ataria da. Guretzat altxor bat da, hitzak dioen bezala, Zizurkilen barrena mila modutan bidaiatzeko aukera ematen diguna. Bertan jaso dira azken urteetan udalak, eta bereziki, herritar eta herriko hainbat taldek egin dituzten lanak».

Zizurkilenbarrena beka

Webgunearen atal berriak aukeratzeko garaian, udalak azken urteetan eman dituen Zizurkilenbarrena beka hartu ditu kontuan. Zubeldiaren esanetan, «beka horren irabazleek egindako lana aitorzarekin batera, emaitza herritarren eskura jartzeko baliatu dugu ataria».

2006. urtean, Maialen Azkuek irabazi zuen beka. Zizurkildarra baserri bidera ibili zen sei hilabetez, argazki zaharren bila. Zizurkilenbarrena webgunean 500 argazki zintzilikatu dituzte orain, jasotako baserrien izenaren arabera sailkatuta. Ikusteko aukeraz gain, argazki bakoitzaren inguruko informazioa ematen da. Azkuek bere bizitzan sei hilabete haiek eduki zuten garrantzia azpimarratu zuen herenegun, Atxulondon: «Antropologia ikasten ari nintzen, eta teoritik praktikara salto egiteko aukera eman zidan beka. Baserri bidera ibili nintzen argazki bila, eta asko ez ziren jabetzen irudi horiek zuten garrantzia norainoakoa zen. Esperientzia benetan aberasgarria izan zen niretzat».

2008an, Urtzi Reguerok irabazi zuen beka. Berak egindako lana, Ariane Ensuzaren laguntzarekin, Hizkera atal berriari zintzilikatu dute. Alde batetik, Regue-



Urtzi Reguero, Leire Zubeldia eta Maialen Azkue herenegun, Atxulondo kultur etxean. A. IMAZ

rok eta Ensuzak 60 urtetik gorako herritarrekin eginiko elkarrizketak entzun daitezke. Bestetik, bildutako informazio guztia aztertzen duen liburua dago Hizkera atalean, *Zizurkil ahoz aho*.

Reguerok bere lana gogoratzean, herenegun, bildutako informazioaren garrantzia azpimarratu zuen. Filologoa izanik, pare parean egokitu zitzaion bekaren aukera, Zizurkilgo hizkera aztertzeko helburua zuena, hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, helduekin egin moduan, herriko gazteen hizkera aztertu beharko litzatekeela aipatu zuen Atxulondon; beka hauekin jarraitzea ere eskatu zion Zizurkilgo Udalari. Leire Zubeldiak, bere aldetik, beka berri bat kaleratuko dutela aipatu zuen, nahiz eta oraindik gauza asko zehaztu behar diren.

Atal berrietan hirugarrenak ez dauka bekekin loturarik. Oroimena atala, Hernandorena kultur taldeak udalaren laguntzaz egindako lanaren ingurukoak da; gerra zibilean fusilatutako bost zizurkildarren omenezkoa. Bideo muntaiak eta informazioa dago bertan zintzilikaturik.

↓ 'Zizurkilenbarrena' webgunea

WEBGUNEKORAKO BIDEAK

- **Udalaren atari nagusiak:** www.zizurkil.com edo www.zizurkil.eu helbideetatik.
- **Zuzenean:** <http://barrena.zizurkil.eu> helbidetik.

ATAL ZAHARRAK

- **Toponimia.** Herriko txokoak irudi bidez ikusteko aukera, txoko horien argazki zahar eta berriak jasotzen dira, bereziki, Joxin Azkue herritarrek egindako lan eskergari esker.
- **Liburuak.** Udalak Arantzadirekin batera Zizurkilgo historia- inguruan argitaratutako hiru liburua kontsultatzeko aukera.
- **Mapa.** Herriko mapa begiratzeko aukera, hainbat herritarrek etxetik bildutako leku izenekin.
- **Ibilbideak.** Zizurkilen barrena egin daitezkeen ibilbideak proposatzen dira bertan.
- **Sustraiak.** Hernandorena kultur taldeak argitaratzen duen

eskuorriak kontsultatzeko parada.

- **Otaño.** Zizurkilgo Hernandorena kultur taldeak Pedro Mari Otaño bertsolariaren inguruan egindako lana, eta pertsonaiari buruzko beste hainbat argitalpen.

ATAL BERRIAK

- **Argazki zaharrak.** Amaia Labaienek sei hilabetez egindako lana, eta pertsonaiari buruzko beste hainbat argitalpen.
- **Hizkera.** Urtzi Reguerok egindako lana, Ariane Ensuzaren laguntzarekin. Hainbat herritar elkarrizketatu ondoren, bertan egindako hainbat ekitaldiren bideo muntaiak eta, oro har, informazioa.
- **Oroimena.** Hernandorena kultur taldeak, udalaren laguntzaz, gerra zibilean fusilatutako bost zizurkildarren omenez egindako hainbat ekitaldiren bideo muntaiak eta, oro har, informazioa.

Larrun

Egunero idekia
8h30-tik 17h-ra
35 minutu guziz

Animazio berriak urririk!

www.rhune.com



Banaiz Bagara elkarteak euskararekin eta etorkinekin egiten du lan. HITZA

Etorkinak euskarara gerturatzeko udako egitaraua antolatu dute

Banaiz Bagara elkarteak Tolosan eta Villabonan antolatu ditu ekitaldiak; herritar guztiarentzat atek zabalik daude

Asier Imaz

Banaiz Bagara elkarteak udako egitaraua aurkeztu du, etorkinak euskarara gerturatzeko helburuarekin. Oinarritzko ikasgaiak testuinguru berezietan ikasiko dituzte etorkinek, hau da, ikasgelatik at. Ekitaldi guztiak dohainik eta irekiak izango dira, edonork parte har baitezake; euskaldun zahar, berri edo erdaldunek, hain zuzen ere. Udako ekimen hauetan parte hartzen dutenak, euskararen munduan kanten, dantzaren, filmen edo ibilaldien bidez murgilduko dira.

Gipuzkoako hainbat herritan antolatu dituzte ikastaroak Banaiz Bagara elkarteak kideek. Tolosaldean, Tolosa eta Villabonan

↓ Egitaraua

TOLOSA

UZTAILAK 11, ASTEAZKENA
 ■ 19:30-20:30. Dantza ikastaroa, kultur etxean.
UZTAILAK 18, ASTEAZKENA
 ■ 19:30-20:30. Pilota ikastaroa, Beotibarren.
UZTAILAK 25, ASTEAZKENA
 ■ 19:30-20:30. Euskal kantak, kultur etxean.
ABUZTUAK 1, ASTEAZKENA
 ■ 19:30-20:30. Kultur etxean, euskara lantzen.
ABUZTUAK 8, ASTEAZKENA
 ■ 19:30-20:30. Kultur etxean, euskara lantzen.

egingo dituzte ekitaldiak. Informazio gehiagorako, www.nimaiz-gugara.org webgunea zabaldu dute, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte etorkinen artean euskara sustatzera. Tolosa Kantariko kideak, adibidez, euren ekarpena egiteko prest agertu

VILLABONA

UZTAILAK 9, ASTELEHENA
 ■ 19:45-20:45. Dantza ikastaroa, Gaztelekun.
UZTAILAK 16, ASTELEHENA
 ■ 19:45-20:45. Pilota ikastaroa, frontoian.
UZTAILAK 23, ASTELEHENA
 ■ 19:45-20:45. Euskal kantak, Gaztelekun.
UZTAILAK 30, ASTELEHENA
 ■ 19:45-20:45. Gaztelekun, euskara lantzen.
ABUZTUAK 6, ASTELEHENA
 ■ 19:45-20:45. Gaztelekun, euskara lantzen.

dira, ekimenarekin bat egina. Dakienak ez dakienari erakusteko aukera bikaina eskaintzen du Banaiz Bagara elkarteak antolatu duten udako ikastaroek. Etorkinek emango duten urratsari euskal hiztunek erantzutea gelditzen da orain.

Oinkariren dantza ikastaroetan izena emateko, hiru urrats

Abuztuaren 1a baino lehen 20 euroko matrikula ordaindu beharko dute dantza ikasi nahi dutenek

A. Imaz Amasa-Villabona

Oinkari dantza taldeak uztailaren ireki du datorren ikasturterako dantza ikastaroetan izena emateko epea. Aurten, izena emateko sistema aldatu dute Oinkariko-

ek, eta hiru pausotan egin behar da. Lehen bi urratsak emateko epea hilaren 31n amaitzen da.

Aurrena, antolatzaileei haurraren datuak eman behar zaizkie, eta jarraian, 20 euroko matrikula ordaindu beharko da.

Lehen bi pausok burutu dituzten dantzarien izenak abuztuaren 15ean argitaratuko dituzte.

Izen emateari buruzko informazio guztia www.oinkari.net web gunean jarri dute ikusgai, Albisteak atalean, hain zuzen ere.



Oinkari dantza taldeko haurrak. HITZA

→ Laburrak

UEUeko ikastaroetan ikasteko diru laguntzak

ANOETA › Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroak egiteko asmoa duten herritarrek, diru laguntzak eskatzeko aukera edukiko dute, udalak azaldu duenez. Horretarako epea hilaren 20an amaitzen da, eta udal txean egin behar da eskaria. Informazio gehiago nahi dutenek, udaletxera joan beharko dute, edo www.anoeta.net webgunean begiratu.

Aiztondoko jubilatuen hilaren 8an elkartuko dira

GIZARTEA › Aiztondoko jubilatuek, mankomunitateak antolatuta, jai eguna egingo dute hilaren 8an, Adunan. 11:00etan mezetara joango dira. Tokan ibili ondoren, Zizurkilen bazkalduko dute, 14:00etan.

Elosegi gunea aisialdirako egokituko lukete tolosarrek

22 ikasleek biodibertsitatearen inguruko hainbat galdera egin dizkiete herritarrei

A. Imaz Tolosa

Ekainaren 5a Ingurumen Eguna bezala izendaturik dago. Tolosan, DBH 4. mailako 22 lagunek, egun horretan, biodibertsitatearen inguruko inkesta egin zuten Tolosako kaleetan. Galdetegi bat orduko tartean egin zuten, eta 277 laguni eskatu zieten euren iritzia.

Galdetegiak bildu eta aztertu

ondoren, ondorioak kaleratu dituzte. Aldez aurretik, parte hartu zuten herritar guztiei eskerrak eman nahi izan dizkiete, biodibertsitatea zer den hobeto ezagutzen lagundu izanagatik. Lehen galdera, hain justu, horixe izan zen: Zer esan nahi du biodibertsitateak? Ikasleek jasotako erantzunak horrela bildu dituzte: «Gazteek hobeto ezagutzen dute hitzaren esanahia, beharbada gene, espezie, ekosistema eta biodibertsitatea moduko hitzak gaur egun, lehen baino askoz zabalduago daukelako gizartean, eta termino hauek gehiago lantzen direlako eskoletan».

Espezie inbaditzaileen, hegaz-

tien, landareen eta abarren inguruko galderak ere egin zituzten inkestan. Horrez gain, Tolosako Elosegi parkearen inguruan aritu ziren: udalak erosi duen Elosegi parkearekin zer egitea gustatuko litzaizuke? Honela laburbildu dituzte herritarren erantzunak: «Etxeak, aparkalekuak edo dendentzako gunea eraikitzeko aprobetxatuko lukete batzuk. Besteek, zoo bat edo lorategi botanikoa jarriko lukete turismoa erakartzeko. Hala ere, gehienek tolosarren gozamenarako prestatuko lukete berdegune hau, formatu desberdinetan: alkategi bat jarri, haurrentzako parke bat, gazteentzako egokitutako gunea, adi-



22 ikasle kalera irten ziren ekainaren 25ean, galdeketa egitera. E. MAIZ

nakoentzako egokitutakoa, ... gehienek paseatzeko, lasai egoteko, bankuak jarri atseden hartzeko, oso toki aproposa dela uste dute».

Galdeketaekin biodibertsitatearen alde egin beharra dagola ikusi zuten ikasleek, eta informazioa ardatz, horretara gonbidatu dituzte herritar guztiak.

Botikak ordaintzeko sistemak kezka eta haserrea eragin du

Leitzaldeko herritarrek botikak berriz ordaintzeko sistema dute indarrean igandeaz geroztik

Iñigo Terradillos Leitza

Badira hitz batzuk sekula entzungo ez genituenak egoera jakin baten ondorioz, gertutik bizitzea egokitu izan ez balitzaigu. Krisiaren ondorioz, egunero entzuten dugu orain arte arrotz zitzaigun *arriku saria*. Ondorio berak bultzatuta, gaztelaniazko *copago*-a edota *berordaintza* ere herritarren eguneroko hiztegiaren sartu da. Batzuenetan, Leitza eta Are-soko herritarren egunerokoan, esaterako, besteetan baino gehiago sartu da. Izan ere, Espai-

niako Gobernuak onartutako botikak berriz ordaintzeko agindua igandearen jarri zen indarrean Nafarroan. Ondorioz, lehen botikak doan zituzten pentsiodunek orain salneurriaren zati bat ordaindu beharko dute. Haserrea da nagusi euren eta gainerako herritarren artean. Botikariak, berriz, kexu dira, euren ez dagokien lana egiten ari direlako.

«Lan handiagoa dugu orain» Leitzako Plaza-Arrupea farmaziako botikariak «denetarikoa gertaerak» izan dituzte igandeaz geroztik. «Ja herritar gehienek zuten aldatetaren berri, baina bazen deus etzekienik ere», azaldu dute. Sistema berriaz ezagutzaren bat izan ala ez, aldatetiek duten eraginari buruzko azalpen eman behar dituztela diote botikariak. «Argi duguna da, gu-

retzat, botikariontzat lan gehiago eragin duela honek guztiak, izan ere, banan bana azaldu beharra izaten dugu informazio guztia, eta horrek gure ohiko lana erabat oztopatzen du».

Herritarrek informatu ostean, Plaza-Arrupea botikan gomendioak ere ematen dizkiete. «Txartel guztiak gordetzeko esaten diegu, hilabete osoan ordaindutakoa kontuan hartuz, itzuli beharreko kopurua jakin dezaten», adierazi dute. Izan ere, lehen ordaindu behar ez zuten pentsiodunek, orain botiken salneurriaren %10 ordainduko dute, eta gehienera, 8, 18 edota 60 euro hilean.

Herritar bakoitzari dagokion kopurua gaindituz gero itzuli egingo zaio dirua, eta hori era automatikoki egingo dute: «Jakin berri dugu automatikoki egingo dutela, orain arte frogagiriak aur-

keztu beharko zirela uste baiken, eta horrek nahaste handiagoa sortuko zuen».

Igandeaz geroztik botikarik igaro diren herritarren artean «kezka eta haserrea» nabaritu dituzte Leitzako Plaza-Arrupea farmazian. «Zalantza ugari dituzte gehienek, baina, ia herritar guztiak kexu dira sistemaren aldaketa hauekin».

«Aurrez ordaindua dugu»

Arrosa Sestorain leitzarra da aste honetan botikara joan beharra izan duenetako bat. Ez dago «batero ados» indarrean jarri dituzten aldaketekin: «Errenta txikia duten herritarrentzat, bereziki, oso txarra da sistema hau; gurean, amak behar izaten ditu botikak, eta aurrerantzean ordaindu egin beharko ditu. Batzuek poltsikoak ederki bete dituzten bitarte-

an, egoera honi herritarren kontura nahi diote aurre egin».

Juanito Lasarteren arabera, berriz, «pentsiodunak izorratu nahi dituzte». Bere ustez, «egin duten honek ez du izenik, hainbeste urtetan ordaintzen egon eta gero, orain berriz ere ordaintzeak ez du inolako zentzurik».

Iritzi berekoa da Pakita Largo leitzarra: «Ordaindu dugu lehenago ere, eta orain berriz ordaindu arazi nahi digute». Bere usteetan, «osasunean eragin aurretik, beste arlo batzuetan hartu behar lirarteke neurriak». Largok dienez, hilabeteko lehen ez zuten gastua izango dute orain, eta «askori bukaerara iristea zailduko dio horrek». Dena den, gogorrena iristeko dagoela dio, «abuztutik aurrera botika batzuk kendu nahi baitituzte zerrendatik».

Oraindik zehazteko dagoen arren, abuztuaren lehen aurrera indarrean jarriko litzateke neurri hori. Hain zuzen ere, 450 botika baino gehiago kendu nahi dituzte Gizarte Segurantzatik. Beraz, aurrerantzean horiek eskuratzeko, %100 ordaindu beharko dute herritarrek.



Leitzako Plaza-Arrupea farmazian, hainbat herritar, atzo, erosketak egiten. IT.

Errentaren arabeko ordaintza sistema

➔ Igandeaz geroztik Nafarroan indarrean den sistema berriak errentaren arabeko ordaintza zehazten du. Pentsiodunen artean, 18.000 eurotik behetiko errenta dutenek botiken %10 ordaindu beharko dute, gehienez ere 8 euro hilean; 18.000 eta 100.000 euro arteko errenta dutenek ere %10 ordainduko dute, baina gehienez ere 18 euro hilean. 100.000 eurotik gorako errenta dutenek, berriz, %60 ordainduko dute, eta gehienez ere 60 euro hilean.

Biztanleria aktiboari dagokionez, 18.000 eurotik behetiko errenta duten herritarrek %40 ordaindu beharko dute; %50, 18.000 eta 100.000 euro artekoak dutenek; eta %60, 100.000 eurotik goitikoa dutenek.

Botikak doan izango dituzte, berriz, diru saririk jasotzen ez duten langabeek; gizarteratze-

ko errenta duten herritarrek; pentsio ez-kontributiboak dituztenek; ezintasunen bat dutenek; sindrome toxikoa dutenek; eta lan istripuren edo lan gaixotasunen baten ondorioz tratamendua dutenek.

Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, orain arteko sistemak jarraitzen du indarrean. Hau da, pentsiodunek ez dute ezer ordaindu behar, eta pertsona aktiboek, %40.

Bestalde, Osakidetza txartela duten herritarrek dekretu berriak ezarritako baldintzen arabera ordaindu beharko dituzte botikak, hala ere, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaitik kanpo erosten badituzte. Hori bai, dirua berreskuratu ahal izango dute gero.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaitik kanpokoeak, halaber, errentaren arabeko sistemaren arabera ordaindu behar dituzte sendagaiak herrialde horietan.



Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



LEHEN URTEBETETZEA

CANDIDA BEGIRISTAIN ARANZASTI

(Viceleite Urtebetetzearen alaguna)

2012ko uztailaren 6an hitz egin, 96 urtekin.

- Golan bego -

Bere sendiak

Haren arimaren alde onotz bat eskatzen dugu eta, zeren etorriko lehen urtebetetzearen, lehen urtebetetzearen, arimaren alde onotz bat eskatzen dugu. Aizko ANDRE MARRIEN KUSTALDIA etzan ari gingo den urtebetetze meza. Aidez aurretik, mila esker.

ERLAN-ALA, 2012ko uztailaren 6a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Arnezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeak, harpidedun egiteko): 902 82 02 01

Agurrak



Ongi etorri!

Intza Beloki Lizaso (Bedaio).
Ekainaren 27an jaio zen.
Zorionak gurasoei eta
bere anaia Aimarri,
famiarienez partez.

AGURRAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●● agurrak

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Alde Zaharreko bizilagunek, urtero moduan, Alde Zaharreko San Fermín Txiki festa antolatuta dute San Fermín Egunerako, biharko. Ekitaldi guztiak plaza Berrian izango dira. 12:00etan botako dute txupinazoa, buruhandiak txupinazoa-oren ondok aterako dira eta gozoki eta puxikak banatuko dituzte; 17:00etan, entzierroa eta ondoren ume jolasak; 19:00etan, txokolate jatea; eta 19:30ean Gaixoa Ni.
- **Abaltzisketa.** Igandean, hilak 8, Aralarko Parke Naturala ezagutzeko modu dibertigarri bat antolatuta du Gipuzkoako Parke-txe Sarea Fundazioak. 10:30ean Larraitzetik Abaltzisketara doan ibilbidea egingo dute, bidean bertan Aralarko sekretuak ezagutzeko jolas dibertigarri batean parte hartzeko aukera izango delarik. Antolatzailerak azaldu dutenez, ekitaldia oso egokia da familia eta haurrentzat.
- **Aduna.** Asvineneak barreterapia eta antzerki inprobisatzeari buruzko ikastaroak antolatuta ditu. Barreterapia ikastaroa hilaren 14 eta 15ean izango da eta Aitor Navarro izango da irakaslea. Antzerki inprobisatzea, berri, hilaren 16, 17 eta 18an izango da, eta Emmanuelle Thomé izango da irakaslea. Barreterapia izena emateko 627 98 55 68 telefono zenbakira deitu behar da, eta antzerki inprobisatzerako 622 86 79 48

telefono zenbakira.
asvineneaeskola@gmail.com
helbidera ere idatzi daiteke.

KIROLAK

- **Tolosa.** Tolosa CFk antolatzen duen paleta txapelketa hasiko da gaur, 18:30etik aurrera. Gaur Bengoa-Txepe, Mendigain-Perurena, eta Ormazabal-Iban Berdegue-Pagoaga partidak ikusi ahal izango dira, eta astelehenean, Bengoa-Txepe Ormazabal-Iban, eta Otermin-Erasti Berdegue-Pagoaga.
- **Aduna.** Transernio Pilota Txapelketa hasiko da bihar. 10:30etik aurrera alebinetan Usurbil-Andoain eta Zizurkil-Aurrera Saiaz lehiatuko dira, eta infantiletan Amezketa-Andoain eta Aurrera Saiaz-Altzo.
- **Berrobi.** Herriarteko Pilota Txapelketako finala izango da igandean, Donostiako Atano III. pilotalekuan, 10:30ean. Berrobi eta Hernani dira finalistak.

ZINEMA

- **Tolosa.** Igandean, 19:30ean, *Moonrise Kingdom* ikusi ahal izango da. Astelehenean, Ikuslearen egunean, ere film bera botako dute, 20:30ean.

ABESBATZAK

- **Tolosa.** Alegiako Txintxarri abesbatzak Santa Klara komentuko biharko 18:30eko mezan hartuko du parte. Santa Klara komentuarako 400 urte be-

tetzen ditu aurren eta urteurren horren ospakizunen barruan abestuko du Txintxarri abesbatzak. Alegiarrek Pedro Jose Peñagarikano frantsiskotarraren *Euskaldunen meza* abestuko dute.

DANTZA

- **Tolosa.** Gaur, Euskal Herri plazan, 22:00etatik aurrera, Rapa Nuiko Haka Ara Henua eta Ibarrrako Alurr taldeen emanaldia. Musika zuzeneko izago da eta Rapa Nuiko zein Alurren *Oina* zetikuskizuneko hainbat dantza ikusi ahal izango dira.

ERAKUSKETAK

- **Ibarra.** Kultur lantegietako ikasleen lanekin osatutako erakusketa ikusteko azken eguna, gaur. Kultur etxean ikusi daitezke.
- **Alegia.** Mirari Bengoaren margolanak ikusi daitezke, herriko jaiak arte, Jubilatuen tabernan.
- **Tolosa.** *Ni Pinotxo naiz* erakusketa ikusi daitezke, Topic zentroan, irailaren 23a arte. Ostiraletan eta larunbatean bisita antzeztuak eskaintzen dituzte.



Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

ETZI

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.



Ireki atea Zuntzari

15Mb-ko DUOa

+ Finkoetarako deiak, 24 orduz,

16'9 €/hil
urtebetez

Alta ~~de~~ eta instalazioa **DOAN**
Helmen handiagoko Wifi N Kable-modema,
abiadurik handienarekin, **DOAN**
Mugikorra gurekin baduzu, **Internet zure mugikorrean DOAN eta BETIKO**

Orain, mugikorreterako deiak barne

logikaline
943 31 86 11
San Francisco, 19 Tolosa



Banataile
ofiziala

Sustapen hau 2012/07/29a baino lehen egiten diren 15 M-ko Zuntz bidezko DUOaren kontratazioei aplikatuko da. Barne hartzen ditu estatuko deietarako 4000 minutu eta mugikorreterako 60 minutu 45 gela deietarako 45 Min DUOaren bitarteko kasuak. 12 hilabetez aktibazten denetik hasita. 12 hilabetez iraureko konpromisoa. Baxa aurrez eskatzeagatik. Kartago: 15 e produktio eta beste gabeko hila bete bakoitzeko. Zuntz Oplikoaren instalazio berrientzat soilik da aplikatua. Linea ez da sarritan. Zeharriko zergak ez daude sartuta.